



## **AIARAKO UDALAK 2019KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Montse Angulo Solloa andrea  
Iñigo Pinedo Vadillo jauna  
Susana Martín Benavides andrea  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
José Antonio Gorbea Alonso jauna  
Marian Mendiguren Mendíbil andrea  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hemeretziko abenduaren 19an, 19:05ean, Udala ohiko osoko bilkuran bildu zen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunaren zuzendaritzapean eta aipatutako zinegotzien presentziarekin, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluari jarraikiz. M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas izan zen saioko idazkaria.

### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko azaroaren 21eko ohiko osoko bilkurako akta.** Jarraian, Udalbatzari aurreko aktaren berri eman zaio, 2019ko azaroaren 21eko ohiko osoko bilkurari dagokiona.

Ez da inolako esku-hartzerik egon, eta akta aho batez onartu da.

**2.- Udalbatzaren erabaki proposamena, Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara adingabeak joateagatik familientzako laguntzak arautzen dituen ordenantza aldatzekoa.** Ondoren, jakinarazi da Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak, 2019ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, aldeko txostena eman zuela Udalbatzak aipatutako ordenantza aldatzeko erabaki proposamen bat onartzearen alde, eta haren aplikazio-eremua adinez nagusi dieenei ere hedatu zen.

Halaber, erabaki proposamen horren berri eman zaio Udalbatzari, eta horrela dio:

### **“OSOKO BILKURAREN ERABAKI PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Udalbatzak beharrezkotzat jotzen du Aiarako Udalak familiei ematen dizkien laguntzak arautzen dituen ordenantza aldatzea, Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara adingabeak joateagatik.



*Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau hartzea proposatzen da:*

**Lehenengoa.**- *Hasiara batean onestea honako aldaketa hau, Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara adingabeak joateagatik Aiarako Udalak familiei ematen dizkien laguntzak arautzen dituen ordenantzari:*

➤ **Lehenengo artikulua.- Araudiaren xedea. Jatorrizko testuak honela zioen:**

*“Araudi honen xedea da Aiara udalerrian ematen ez diren musika eta dantza jardueretan Aiaran erroldatuta dauden adingabeak inskribatzearen ondoriozko gastuak ordaintzeko Udalak familiei urtero ematen dizkien dirulaguntzak arautzea (Aiara udalerrian egonik ere dirulaguntza eskatzen den mailarekin bat ez datozen jarduerak barne), eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eskaintzen dituen jarduerak (udalek edo menpeko erakundeek zuzenean eskaintzen dituzten jarduerak)”.*

**Atal hori horrela geldituko da:**

*“Araudi honen xedea da Aiara udalerrian ematen ez diren musika eta dantza jardueretan Aiaran erroldatuta dauden pertsonak inskribatzearen ondoriozko gastuak, ordaintzeko Udalak familiei urtero ematen dizkien dirulaguntzak arautzea (Aiara udalerrian egonik ere dirulaguntza eskatzen den mailarekin bat ez datozen jarduerak barne), eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eskaintzen dituen jarduerak (udalek edo menpeko erakundeek zuzenean eskaintzen dituzten jarduerak)”.*

➤ **Laugarren artikuluan.- Onuradunak eta eskatzaileak.**

**Artikulu honetako lehen eta bigarren paragrafoak aldatzea proposatzen da. Horrela zioten:**

*“Onuradunak adingabeak izango dira (jardueran inskribatzen diren unean), baldin eta Aiarako udalerrian erroldatuta badaude, etenik gabe, diruz lagundu beharreko jarduera hasi baino sei hilabete lehenagotik, gutxienez. Hala ere, dirulaguntzaren eskatzailea xede den jarduera egiten duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da, eta baldintza hauek bete beharko ditu: ...”*

**Atal hori horrela geldituko da:**

*“Onuradunak udalerrian erroldatutako pertsonak izango dira, baldin eta Aiara udalerrian erroldatuta badaude, etenik gabe, diruz lagundu beharreko jarduera hasi baino sei hilabete lehenagotik, gutxienez.*

*Hala ere, xede den jarduera egiten duena adingabea bada, dirulaguntzaren eskatzailea aita, ama edo legezko tutorea izango da, eta baldintza hauek bete beharko ditu: ...”*

➤ **Zortzigarren artikuluan.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.**

**Lehenengo paragrafoko azken zatia kentzea proposatzen da, honela dioena: “...eta artikulu honetan jasotako muga...”**



*Eta bigarren paragrafoa osorik kentzea, horrela dioena: “Adingabeko onuradun bakoitzeko gehienez ere 2.000,00 euroko laguntza egotziko da, halako moldez non eskatzaile bakoitzak gutxiengo urte guztietan bere ardurapean duen adingabe bakoitzeko lor dezakeen zenbatekoak ez baitu muga hori gaindituko”.*

➤ **Bederatzigarren artikuluan.- Eskaerak, dokumentazioa eta epea**

**I. eranskinean, hurrengo atalen idazketa aldatu da, eta honela idatzita geratuko dira:**

- a) *Jarduera egiten duen eskatzailearen NANaren fotokopia. Onuraduna adingabea bada, onuradunaren aita, ama edo legezko tutorearena izango da.*
- b) *Onuraduna adingabea bada, familia-liburuaren fotokopia, eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak biltzen dituen, edo, hala badagokio, adingabearen legezko tutoretza jasotzen duen ebazpena.*
- f) *Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eskatzaileari (edo adingabe onuradunaren guraso edo legezko tutoreari) dagozkion zergak ordainduta dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiarako Udalak Foru Ogasunaren zergak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak dituela frogatzen duen ziurtagiria eskatzeko.*
- i) *Aiara udalerriko erroldatze-ziurtagiria, onuradunaren, gurasoaren edo legezko tutorearen (adingabea bada) eta, gainerako kasuetan, eskatzailearen antzintasuna jasotzen dituen.*

**Bigarrena.-** *Jendaurrean jartzeko epea irekitzea, 30 egun baliodunekoa, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Bertan, edozein interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, eta Udalbatzak aztertuko ditu behin betiko onetsi baino lehen. Hasierako onespeneraren aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko da hasieran onetsitako erabakia, eta osorik argitaratuko da ALHAOn.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea, kontuan hartuta ordenantzaaren aldaketa hauek testu osoa ALHAOn argitaratzen den unean sartuko direla indarrean.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du erabaki proposamena bozketa arruntean onestea, idatzi den moduan.

**3.- Alkatetza dekretuen berri ematea.-** Ondoren, Udalbatzari 2019/565etik 2019/611ra (biak barne) bitarteko alkatetza dekretuen berri eman zaio. Hona hemen dekretuen helburua, laburbilduta:



ALKATETZA DEKRETUA - 2019/565.- R.M.C.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak eta balkoiak aldatzeko udal lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/566.- FJ.V.RI.- Erbi lurzatian irristailu-atea jartzeko obrarako udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/567.- Luiaondoko Barrena kaleko mugikortasuna hobetzeko obren aldaketak eta prezioen igoera onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/568.- JM<sup>a</sup>.U.P.- Menagaraiko 2. poligonoko 827 lurzatia banantzeko udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/569.- Aiarako Kultura Elkartea.- Obrarako udal lizentzia ematea, Arespalditzako lokalean atea eta barneko zura konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/570.- Murgako 4. poligonoko 242. finkaren egoera urbanistikoari buruzko 19-11-18ko txosten teknikoa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/571.- M<sup>a</sup>V.I.B.- Dokumentazio osagarria eskatzea Murgan finka bereizteko eta batzeko baimena emateko.

ALKATETZA DEKRETUA- 2019/572.- Obrarako lizentzia ematea Arespalditzan zuntz optikoaren kanalizazio berria egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA- 2019/573.- Luiaondoko Barrena kalean aparkatzeko eta mugikortasuna hobetzeko obraren kontratua aldatzeko espedientea hastea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/574.- Aiarako Bolatoki Taldea.- Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzeko onespena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/575.- MC.S.O. 2019ko ordaindutako TMIZren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/576.- I.M.O. 2019ko ordaindutako TMIZren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/577.- P.J.R.M. 2019ko ordaindutako TMIZren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/578.- Talleres Banoa S.L.- 1. isuna jartzea, eraikuntzako materialak justifikatzeko eta saiakera berria eskatzeko espedientea hastea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/579.- San José eta San Buenaventura Fundazioa.- Arespalditzan eraikuntza eraisteko obrarako lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/580.- J.J.C.E.- Beotegiko behi aziendarentzat pabiloia eraikitzeke obrarako lizentzia eta obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/581.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2019ko azaroko faktura onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/582.- Asfaltados y Construcciones Morga SL- Luiaondoko Barrena kaleko mugikortasuna hobetzeko obra egiteko bigarren luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/583.- J.A. de Erbi.- Linares de Erbi auzoan luminaria berria jartzeko obrarako udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/584.- J.A. de Etxegoien.- Babio mendiko bidexka seinaleztatzeko obrarako udal lizentzia ematea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2019/585.- Asfaltados y Const. Morga SL. Egindako obren 5. ziurtagiria onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/586.- PROVISER IBERICA SLU - Udal igerilekuetan "gune estalia jartzeko obra" egiteko kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/587.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenoko eskolen inguruan elementu bio-osasungarriak jartzeko obrarako lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/588.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea (F/2019/17).

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/589.- Plastikoen aldizkako bilketa Elder Medio Ambiente Vitoria SLLri esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA- 2019/590.- Luiaondoko Barrena kalean aparkatzeko, mugikortasuna hobetzeko eta aisialdirako obren kontratua aldatzeko espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/591.- Azaroko langileen eta alkatearen nominen hileko txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/592.- Orixe Comercial SL- Zuhatzako 2. poligonoko 2285. lurzatian familia biko 2 etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/593.- Obra eta zerbitzuen brigadarako 4x4 ibilgailu bat renting bidez hornitzeko kontratua esleitzeko kontratazio espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/594.- MR.U.L.- Olabazarreko Garbiras auzoko 39an itxiera egiteko obrarako udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/595.- JV. M.O.- Lantenon pergola eraikitzeke okupazio lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/596.- M.B.U.- Luiaondoko Santo Domingo auzoko horma konpontzeko obrarako udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/597.- Talde politikoentzako diru-ekarpena, 2019ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/598.- Udalkideentzako diru-ekarpena, 2019ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/599.- Etxaurren Ikastola. Bi urteko gelako talde psikopedagogikoaren eta gelako laguntzailearen nominen ordainketa, 2019ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/600.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. 2019ko urriko kuotaren ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/601.- G.A.A.- Erretes Lantenon familia bakarreko etxebizitza okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/602.- A.H.C.- Etxegoien etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea, eta obra-hondakinak kudeatzeagatiko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/603.- Aiaraldea Kooperatiba Elkarte.- 2019an emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/605.-M.T.M.I.- Hiri-izaerako 2020ko OHZren salbuespena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/606.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Izorian LED



argiak ordezkatzeko obra txikia egiteko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/607.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea (F/2019/18).

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/608.- Aranzadi Zientzia Elkarteari emandako dirulaguntza murriztea, zenbateko osoa justifikatu ez delako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/609.- 2019an musika eta dantza jardueretan parte hartzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko eta ukatzeko ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/610.- Elkarbidetza Pentsioak.- 2019ko abenduko faktura onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/611.- Langileen eta alkatearen nominen hileko txostena eta 2019ko abenduko aparteko ordainsaria onestea.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **4.- Galde-eskeak.**

**José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU)** honako hau esan du:

- Egin den nekazaritzako plastikoen bilketari buruz galdetu du. Batzordean ulertu zuen ustiategi guztiak bilduko zirela eta gero ez da hala izan, eta galdetu du zer irizpide erabili den bilketa ustiategi batzuetan egiteko eta beste batzuetan ez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hondar-kontratazioa egin dela, aurrekontuan geratzen zen kontsignazioarekin, eta adierazi zitzaien 63 ustiategiekin harremanetan jarri behar zirela, baina azken bilkuratik hona igaro den denbora dela eta, ezin izan zaie guztiei erantzun, eta premia handiena zutenak kontuan hartu dira. Urtarrilean edo otsailean plastiko bilketa normalizaturako izapideak egingo direla gehitu du.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) 63 ustiategiekin harremanetan jarri ote ziren galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak baietz erantzun du, eta pilatutako plastiko gehien zituzten ustiategietara joan direla adierazi du.

**Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ)** honako hau esan du:

- Haizearen ondorioz errepidera atera diren edukiontzi asko daudela kontuan hartu behar da, lotuta ez daudelako, eta ez daki aurrekontuan sartu behar den edo Kuadrillara eraman behar den; lehen lotuta zeudela adierazi du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du edukiontzien kokapena aztertzen ari direla, adibidez, Luiaondon bi kendu direlako, eta gai hori ere aztertuko dela.

- AOT plazari lotuta dagoen lizitazio elektronikoen gaiari dagokionez, adierazi du kudeaketa horiek Administrazio Batzarren mende soilik egotea astakeria dela, ez



dutelako baliabiderik; beraz, Ayala aholkularitza-enpresari laguntza eskatzeko aukera planteatu du, parte hartu dezan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ados dagoela horrekin, eta plaza berria sortzeko prozedura luzea denez, eta LGAen zerbitzua oraindik prozedurak ezagutzen ari denez, aholkularitza-enpresaren laguntza eska daiteke kudeaketa konplexu horiek egiteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du 2020. urtean ere lizitazio elektronikorako prestakuntza lortzea kudeatuko dela eta Foru Aldundiko Toki Administrazio Sailak ere arlo horretan laguntza eskaintzen duela.

**Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU)** honako hau esan du:

- Udaletxean hileta zibila egiteko araudirik ba ote dagoen galdetu du; zer ordutegi duen, nor den arduraduna, Udalak guneren bat utzi beharko lukeen...

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dakiela, kontsultatu egin beharko lukeela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du beste udal batzuetan dagoeneko existitzen dela eta ereduren bat lor dezaketela.

- Zuntz optikoari dagokionez, behin baino gehiagotan galdetu dute informaziorik ba ote dagoen, eta Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiak teknikari bat ekartzea nahi dute, Aiarako herritarrei prozesu guztiaren berri emateko eta noiz bukatzea aurreikusten den azaltzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Foru Aldundiak bilera egin zuela herri guztiekin, eta zein herritan eta zein epetan jarriko zen azaldu zuela. Adierazi duenez, ASI k duela gutxi bidali du horri buruzko informazioa eta zinegotzi eta Administrazio Batzar guztiei emango zaie.

- Ibilbide eta bide osasungarrien partidari buruz zerbait egin den galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du momentuz ez dela ezer egin.

- Udaleko kale-izendegirako 1.000,00 euroko partidari buruz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du iaz Kexaako herriarekin bukatu zutela eta datorren urtean beste herri batekin hasiko direla. Adierazi du Administrazio Batzarrek erabakitzen dutela eta haiek onartzen dutela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du jakinaren gainean egon nahi dutela.



- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du goian zegoen ordenagailu bati buruz, zinegotziek sarrera-irteeren erregistro orokorra kontsultatzeko zegoena.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Administrazio Batzarrak erabil dezakeen ordenagailu eramangarria dela, eta, zinegotziek Accede aplikazioaren bidez erabiltzaile bat dutela kontsulta moduan sartzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du abenduan izan dutela baliabide horren berri.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du inoiz ez dela galdetu, eta, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) erantzun dio galdetzeko jakin egin behar dela, eta oinarrizko informazioa eman beharko litzatekeela.

- Gaztelekuari buruz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du azterlana egin zuen enpresarekin hitz egin dutela, urtarrilean edo otsailean familiekin bilera egiteko eguna finkatzeko, agendak bateratzea lortzen denean.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du atzeratzen ari dela eta gazteak ilusioz beteta zeudela.

- Jarri den 40 metroko telefonia-dorreari dagokionez, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du legekoa izango dela eta baimen guztiak izango dituela, baina paisaian eragin izugarria duela, eta Administrazio Batzarrari jakinarazi behar zitzaioela. Gaineratu du alkateak karguaz jabetu zenean adierazi zuela elkarriketa eta adostasuna bilatuko zirela, baina kasu honetan, ez direla inguruko Administrazio Batzarrak kontuan izan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du dorre hori bezalako asko daudela udalerrian.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du bere taldeak, momentuz, ez duela beste dorrerik ikusi.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi duenez, udaletxeko sarrera-erregistrora lizentzia eskaera iristen denean, teknikariek horren berri ematen dute eta legez dagozkion oniritzi guztiak edukiz gero, lizentzia eman behar zaie; gaineratu du, bestalde, lizentzia horrek Menoioko Administrazio Batzarraren oniritzia duela eta konexio arazoak konpontzen lagunduko duela. Bukatzeko, adierazi du enpresa batek lizentzia eskatzen badu eta araudi osoa betetzen badu, ezin zaiola ukatu.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du ziur instalazioa legekoa dela esanez hasi dela, baina kexu da *a priori* Administrazio Batzarrei eragiten dieten gai horien berri ez zaielako eman.





**Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU)** honako hau esan du:

- Azaldu duenez, aurreko batzordean esan zen Saraoben plaka bat jarriko zela Aiarako ondarea balioesteko, eta enpresa bati eskatuko zitzaiola, eta galdetu du ea beti enpresa berari esleitzen zaion ala ez; izan ere, legezkoa den arren, hainbat enpresek egin dezakete. Gehitu du hori eginda zetorrela, baina alde zuzenetik jakin nahiko lukeela zer egingo den, non eta zein enpresari esleituko zaion. Galdetu du, halaber, ea ekitaldia mundu guztiari irekiko zaion edo soilik instituzionala izango den, izan ere, Malatu zuhaitzaren kasuan ikusi zuen argazkian ordezkari politikoak baino ez ziren agertzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du beste argazki askotan ez direla politikariak agertzen, eta hori argitaratu zuen komunikabideari ez zitzaiola argitaratu behar zuenari buruzko jarraibiderik eman.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du oraingoan lehenago jakin dugula, izan ere, aurrekoan geroago jakin genuen, zabaltzen ari zirenean.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du, gai horren harira, komenigarria iruditzen zaiola hurrengo batzordearen bilkuran Informazio Batzorde irekiak arautzeko zirriborroa ekartzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du beraiek ekarriko dutela batzordean eztabaidatuko den zirriborroa, ondoren osoko bilkuran erabakia hartzeko.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du badakitela zein zaila den batzordeetan, batzuetan, duten izaera pertsonalarengatik, jendaurrean jarri ezin diren gaiak jorratzea, baina kasu horietan gai horiek aztergaien zerrendako azken puntua izan daitezke, jendea joan dadin. Hori formula posible baten bat besterik ez dela dio. Amaitzeko, eskatu du zirriborroa aztertzeko nahikoa denborarekin helaraztea.

**José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU)** honako hau esan du:

- Sarrera-irteeren erregistroan ardo faktura bat ikusi du, eta zertarako den galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du udal langileei ematen zaien Gabonetako otarrekoa dela.

- 2019ko abenduaren 12ko 4462 eta 4463 zenbakiko sarrerei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren bi jakinarazpen dira, Leader 2019 programari buruzkoak, “Luiaondoko Barrena kaleko hiri-birsorkuntzako proiektua, aparkalekua jartzea, mugikortasuna eta aparkaleku eremua hobetzea” eta “Udal igerilekuetan gune estalia jartzea” lanei buruzkoak, hurrenez hurren, eta laguntzarik eman digun galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du urtea amaitu baino lehen, laguntza eskatu zaien proiektuei dagokienez, haien gauzatze egoera eguneratzea eskatzen zaigula, egoera aurreratuagoan dauden proiektuek puntuazio handiagoa lortzen baitute; amaitzeko, esan du oraindik ez dugula laguntzarik jaso.



- Murgako industrialdeari dagokionez, Udalbatzaren aurreko osoko bilkuran txostena eskatu zen Zorroza enpresaren egoera eta inplikazioei buruzkoa.

Alkate jaunak adierazi du prest dagoenean bidaliko dela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea Murgako industrialdean 2020ko udal aurrekontuarekin zerbait egitea planteatu den, edo hainbat urtetan egiten joatea proposatu den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela inolako aurrekontu partidarik aurreikusiko, mantentze-lanetarako 3.000,00 eurokoaz gain, eta Eskualdeko Enplegu Planean langileak kontratatuz gero, sastrakak kentzeko eta zuhaitzak mozteko lanak egin daitezkeela; adierazi du, hori alde batera utzita, udal aurrekontuak ezin diola aurre egin gauzatu beharreko jarduera integralak eskatzen duen zenbateko ekonomikoari, inbertsio partzial txikiek ez bailituzkete arazoak konponduko. Gaineratu du uraren eta saneamenduaren bereizketa guztia, hornidura, zoruaren eta aglomeratuaren zolaketa berritu behar dela. Amaitzeko, adierazi du inbertsio hori egin daitekeen etorkizuneko dirulaguntza programen zain egongo direla, Foru Planean ez baita industrialdeetako obrarik sartzen.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esan du asmoa izan behar dutela, proiektu bat egin eta faseka burutu daitekeelako. Gehitu du alkate jaunak esan zuela diru gehien biltzen zen tokietako bat zela, eta horregatik zaindu beharko litzatekeela enpresei erakargarri egiteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Udala dirua biltzen den tokiez eta biltzen ez denez arduratzen dela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esan du proiektu bat eta beharren azterketa bat egin beharko liratekeela, eta horietan soberakina erabili.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du dagoeneko eginda dagoela Foru Planerako eguneratu litekeen oinarritzko dokumentu bat.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea, adibidez, argiztapen arloan ezer egiterik dagoen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez lukeela zentzurik izango, dena aldatu behar delako; gaineratu du dirulaguntza lortuko balitz, adibidez, % 80koa, laguntza osatzeak zentzua izango lukeela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) berriro esan du proiektu integrala eskatzen duela eta hura faseka gauzatzea.

Gogoratu du Ingurumen Sailaren txostena eskatu duela eta alkateak erantzun dio dagoeneko eskatu dela.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du sarrera-erregistroan Telefonicari bidalitako faktura bat ikusi duela eta zer den galdetu du.



Alkateak erantzun du kontratu historikoa dela, udaletxe zaharraren etxabeetan dagoen zentral-instalazioa alokatzearen ondorioz, nahiz eta orain agian zentzua duen aztertu behar den.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esan du abenduaren 13an San Isidro 2019ko gastuak justifikatzeko agiriak bidali zirela sarrera-erregistrora, eta galdetu du ea abelburuentzako zer dirulaguntza dagoen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bi dirulaguntza txiki daudela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du Pirinioetako abelburuen lehiaketa batean parte hartu zuela eta 5.000,00 euroko laguntza lortu zutela.

Alkateak erantzun du uste duela laguntzaren zatirik garrantzitsuena Abereri ordaintzen zaiola zuzenean egiten duen kudeaketagatik, behin faktura jasotzean, baina egiaztatu egingo duela.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) Ingurumen teknikariak eginiko nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzua esleitzeko balorazio txostena irakurri du. Berrito esan du berak batzordean ulertu zuela ustiategi guztiei aldirako bilketa egingo zitzaiela, eta galdetu du zergatik batzuei bai eta besteei ez zaien egin.

Alkate jaunak adierazi du aurrekontu partida agortu zela eta geratzen zenarekin pilaketa handiena zuten ustiategietakoak bildu zirela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea orduan zer egin behar den, ea urtarrilera edo otsailera arte gorde behar den. Gehitu du beste gai batzuetarako Diruzaintzako soberakinetik dirua hartu dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du unea ikusita ez zuela astirik ematen soberakin bidez finantzatuko lizitazio bat izapidetzeko. Adierazi du, halaber, lehentasunagatiko ordena ezartzen dela, sortzen den plastiko kopuruaren arabera, ustiategi batzuetan urteko bilketa bakarra egiten baita, eta ez da hain larria otsailera arte itxarotea. Gaineratu du aurrekontua lau enpresari eskatu zitzaiela eta Elderrek hori egiteko eskaintza egin zuela, eta horregatik kontratatu zen. Adierazi du Udalak bere gain hartu duela zabortegia zuzenean ordaintzea, ahalik eta baliabide gehien bilketan erabiltzeko.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du Elder enpresarekin hitz egin duela eta hogeita hamar ustiategirena soilik jasotzeko agindua zutela esan diotela, eta horregatik galdetzen duela. Gaineratu du beste gauza batzuetarako soberakina erabiltzen dela, eta uste du kontu hori garrantzitsua dela, ematen zaien dokumentua ere behar dutelako, eta ekainaz geroztik horrela dabilta.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hirurogeita lau ustiapenekin harremanetan jarri behar zirela, pilatutako plastiko gehien zituzten ustiategiak kontuan hartzeko. Gaineratu du kontratuaren zenbatekoa ikusita ez duela



zentzurik ulertzea bilketa ustiategi guztietan egin daitekeela, urteko bilketa 15.000,00 euro dela kontuan hartuta.

- Ehiza esparruko ehiza aprobetxamendua esleitzeagatik ordaindu beharreko kanonari dagokionez, José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea ez duten ordaindu behar aurreko kontratuari dagokion kanonaren zati proportzionala.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uste duela urteko ordainketa bakarra dela, baina egiaztatuko duela.

- Plastikoen kontratuaren lizitazioari dagokionez, José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea sarrera eta irteera guztiak dauden, lau enpresari eskaintzak eskatu zaizkielako eta bi eskaintza bakarrik aurkeztu dituztelako; hala ere, lau enpresarentzako irteerak daude.

Erantzun zaio lau irteera daudela gonbitari ezezkoa eman arren guztiei jakinarazten zaielako, lizitazioaren emaitza jakin dezaten. Hala ere, adierazi da teknikaren balorazio txostenean egindako gonbidapen eta jasotako eskaintza guztiak aipatzen direla.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du soilik bi sarrera agertzea eta, hala ere, lau irteera egotea harritzen dituela.

Azkenik, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) bi argibide eman nahi ditu aurreko osoko bilkuran sortutako gaiei buruz:

- Lehenengoa, Construcciones Izoria enpresari Arespalditzako kontsultategiaren kontratuaren lizitazioan parte hartzeko gonbita bidaltzearen inguruan sortu zenari buruzkoa. Adierazi duenez, 1094 zenbakidun irteera Balgorza enpresarako gonbitari dagokio; 1093 zenbakiduna, Izoriako enpresari, Murgako industrialdean, eta azkena, Menoyo Gochiri.
- Bigarrena Diruzaintzako soberakinaren erabilera zifrei dagokie, alkatetzaren eskumenen barruan daudenak, eta honako hauek dira:
  - Aurrekontuaren % 5: 118.264,48 euro.
  - Kreditu gehigarrietan erabilitako soberakina: 91.749,38 euro.
  - Gainerako zenbatekoa: 26.515,10 euro.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du zortziak eta hogeitaz direnean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi abenduaren hemeretziaren. Nik, idazkaria naizen honek, guztiaren fede eman dut.

O. E.:  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.